



Astelehena, 2008ko irailak 29, 09:23:16an ber

Gaurko alean

[PAPERREKO EDIZIOA](#)
[EUSKAL HERRIA](#)
[MUNDUA](#)
[KIROLA](#)
[PLAZA](#)
[EZTABAIDAGUNEA](#)
[BLOGAK](#)
[BEREZIAK](#)
Papereko edizioa Larunbata, 2008ko irailak 27[SAILAK >](#)
[Harian](#) |
 [Iritzia](#) |
 [Kirola](#) |
 [Agenda](#) |
 [Plaza](#)
PLAZA

Uztarekin batera, asteburuan iritsiko da Sagar Uzta jaia Astigarragara

Sagardoetxeak antolatu du jaia, eta aurten zortzigarren aldia du; egun handia bihar izango da

Oier Arregi Astigarraga

Urtero moduan, Astigarragan tolaireko lanen hasiera abian jartzeko, gaur eta bihar sagarra eta sagardoaren inguruan antolatu dituzte ekitaldiak. Zortzigarren urtez jarraian, Sagardoetxeak antolatu du Sagar Uzta jaia.

Asteburuko ekitaldien artean daude: 2006an arrakasta handia izan zuen Land Art ekitaldia eta 2008an lehenengo aldiz egingo den Argazki Rally Digitala.

Gaur hasiko da 2008ko Sagar Uzta jaia; hala ere, biharkoa da, dudarik gabe, jaietako egun handia. Horrela, gaur Sagar Jauzia lore apainketa tailerra izango da, Joseba Barandiaran plazan. Horrekin batera, Sagar Dantza eta Kirikoketa ikastaroak ere izango dira, plaza berean.

Bihar egun handia

Bihar, hainbat ekitaldi izango dira, goizetik hasi eta arratsaldera arte.

Pelotari kaletik Foru plazara Sagar Biltzea desfilea izango da, 10:00etan. Bertan, baserriarrak sagar, saski eta kizkiekin izango dira, eta dantzariak, trikitilariak, abeslariak... ere parte hartuko dute.

Gero, 11:00etatik 14:00etara, erakusketa izango da, Foru plazan, Astigarragako baserrietatik eramandako sagarrekin. Erakusketa ez ezik, erakustaldiak ere izango dira gunen berean, sagarraren umotzearen, txertoaren eta saski egileen erakustaldiak izango dira. Bertan, trikitilariak, dantzariak, abeslariak eta txalapartariak izango dira giroa alaitzen.

Horiez gain, sagar biltzea kizkiarekin, sagar jotzea pisoiarekin eta pasaren zanpaketa ere ikusi ahalgo dira. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria izango da, pilotalekuan.

BLOGAK[Nafar periferiatik](#)**Aurkaria mirailtzat j**

Erantzunak: 0

[Mendiko behatokia](#)**Bake-bakean**

Erantzunak: 0

[Hitz beste](#)**Deabrua**

Erantzunak: 1

HARPIDEDUNEN KIO:
**JESUSKO/
TURISMO/
Bi lagun-
gaua eta**
(astelehenetik ostira**EZTABAIDAGUNEA**
[Munduko ekonomia](#)
[Kezkatuta al zau](#)

Eman zure iritzi

[Udazkeneko testuinguru](#)
[Aurre egiteko biderik iku](#)

Eman zure iritzi

Land Art, herritarrek egina

Astigarragako artista Idoia Lizeagak duela bi urte egindako Land Art erakustaldiak izan zuen harrera ona ikusita, aurten beste bat egitea onartu du artistak, Sagardun Partzuergoak eta Sagardoetxea Museoak horrela eskatuta. Hala, gaur hasiko da 18:00etan, Joseba Barandiaran plazan, eta bihar amaituko dute erakustaldia.

Land Artaren mamiak margoa, eskultura, musika... dira. Artistaren helburua jendearen arreta erakartzea da, gizartearen isla sortuz. Horrela, Lizeagaren esanak jarraituz, gaur arratsaldean tailer irekiak izango dira, eta bertan eskulturaren parte izango diren *kizkiak* margotuko dituzte.

Iaz herriko plazan bakarrik izan bazen, aurten herri osora zabalduko da, eta, horrela, herri guztian ikusiko da zerbait gertatzen ari dela.

Argazki Rally Digitala

Aurtengo berritasun gisa, I. Argazki Rally Digitala izango da bihar. Bertan argazki zale guztiek hartu ahal izango dute parte.

Argazki Rallyan parte hartu nahi duenak, bihar 09:00etatik 10:00etara udaletxeko arkupetan izena eman beharko du. Izena ematean 3 euro ordaindu behar dira. Ekimen horren gaia 2008ko Sagar Uzta jaia izango da, eta parte-hartzaile bakoitzak sei argazkiko bilduma bat aurkeztu beharko du, irailaren 30etik urriaren 2a bitartean, Sagardoetxean. Argazkiek 20x30eko neurria izan beharko dute gutxienez, eta 2.000x3.000 pixedetako erresoluzioan entregatu beharko dira. Sari banaketa urriaren 17an izango da, 19:00etan, Sagardoetxean. Honako sari hauek banatuko dira: bildumarik onenak 190 euro jasoko ditu, bigarrenak 160 euro, eta hirugarrenak 130 euro.

© BERRIA-Edizio Digitala
berria@berria.info - www.berria.info

[Lege Informazioa](#)

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590 17:

